

2019/02/26an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA
CORPORACIÓN. Día 26/02/2019.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Josu Ezkurdia Santamaría

Zinegotziak

Maite Zubia Atxaga
Maite Uribe Beristain
Aitor Zubizarreta Alegria
Aintzane Agiriano Errasti
Edorta Barandiaran Garcia
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza
Rafael Bernal Gato

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2019ko otsailaren 26an, arratsaldeko seietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Josu Ezkurdia Santamaria jarduneko alkate-udalburu jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaien buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Jose Ramon Zubizarreta eta Mainer Otamendi.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas del día 26 de febrero de 2019, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente en Funciones Josu Ezkurdia Santamaría y la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten José Ramón Zubizarreta y Mainer Otamendi

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

2018ko abenduaren 18an egindako ezohiko bilkurako eta 2019ko urtarrilaren 22an egindako ohiko bilkurako aktak onartu dira.

2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

2.1.- Hartutako erabakiak.

2019ko otsailaren 19ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Berariaz eman da 1, 2 eta 3/2018 kreditu aldaketa espedienteak onartzeko Alkate erabakien berri.

3.- PLANTILLA ORGANIKOAREN ALDAKETA 2019rako.

Plantilla organikoa aldatzeko proposamena ikusi da, administrari harreragile lanpostura atxikitako karrerako funtzionario Nuria Durana Aldaz andreari lanpostua gorde gabeko borondatezko eszedentzia egoera aitortu zaiolako 2019ko otsailaren 1etik aurrerako eraginarekin.

Administrazio onaren printzipioak eskatzen du erakundea etengabe egokitu behar dela egon daitezkeen aldaketetara, ekonomia eta antolaketa errealitatea benetan islatuz.

Plantilla organikoak berezkoa du Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4. artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 4. artikuluan jasotako auto-antolaketa ahalmena, baztertuta gelditurik sindikatuarekin negoziatzeko derrigortasuna.

Plantilla onartzea eta, ondorioz, baita bertan egindako aldaketak ere, Udalbatzarrari dagokio, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 22. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta eskumen hori ezin da eskuordetu.

Kontuan hartu behar da plantilla, udal aurrekontuarekin batera onartu zena, aldatzeko egin beharreko tramiteak aurrekontua onartzeko egin beharreko berak direla, horrela eskatzen baitu Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen Testu Bategina onartu zuen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzazko Errege Dekretuko 126. artikulua.

Udalbatzarrerako gai zerrendan sartu aurretik Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak aztertu behar du espedientea, horrela eskatzen baitute, besteak beste, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 20. artikulua eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Toki Erakundearen Antolamendua, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduko 82., 123. eta 126. artikuluek.

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Plantilla organikoaren ondorengo aldaketa onartzea administrari harreragile lanpostuari dagokionez:

<i>Lanpostu kopurua</i>	<i>Lanpostuaren izena</i>	<i>L.6/89 taldea</i>	<i>Egoera</i>	<i>Oharra</i>
KARRERAKO FUNTZIONARIENTZAKO LANPOSTUAK				
GAITASUN NAZIONALEKO FUNTZIONARIOAK				
ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA				
* <i>Administrazioko azpieskala</i>				
1	Administrari harreragilea	C1	Hutsik	Borondatezko eszendentziarengatik, lanpostua gorde gabe.

BIGARRENA.- Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea 15 egun baliodunez, interesdunek aztertze aukera izan dezaten eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jartzeko Udalbatzarrari.

Erabakia behin betikotzat joko da aipatutako epean ez bada erreklamaziorik aurkeztzen. Erreklamaziorik aurkeztuz gero, horiek onartzeko edo baztertzeko eta plantilla organikoaren eta plantilla aldaketa behin betiko onartzeko proposamena egingo zaio Udalbatzarrari hilabeteko epean.

4.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaratura egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoiztuta egoteagatik edo beste arrazoiren batzuegatik aurreko ekitaldietatik kobratu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko Diru Bilketa Zerbitzuak tramitatutako espedientearen berri eman da.

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espedientea onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuengatik, bertan agertzen diren subjektu pasiboak eta bertan jasotako diru kopuruengatik:

KONTZEP/EPEA/ZENB.	ZENBATEKOA €	ZERGADUNA	ZERGATIA
MULTA 2008 31	30,00	FOYO FOYO SECUNDINO	PRESKRIPZIOA
MULTA 2008 67	30,00	QUELLE AÑEL EMILIO	PRESKRIPZIOA
MULTA 2008 71	30,00	GUIMARAES DE SOUSA MARIA	PRESKRIPZIOA
MULTA 2008 94	30,00	ARRIZABALAGA IRASUEGUI J	PRESKRIPZIOA
MULTA 2008 108	30,00	VICENTE SANCHEZ ISIDRO	PRESKRIPZIOA
MULTA 2008 140	30,00	VICENTE SANCHEZ ISIDRO	PRESKRIPZIOA
MULTA 2008 181	30,00	TEIXEIRA DA SILVA JOSE F	PRESKRIPZIOA
MULTA 2008 294	30,00	GARCIA MONTES XABIER	PRESKRIPZIOA
MULTA 2008 407	30,00	TALLER DE MORFEO S.L.	PRESKRIPZIOA
MULTA 2008 408	13,12	ENECOTEGUI HORNO MIKEL	PRESKRIPZIOA
MULTA 2017 259	25,00	HELADOS Y POSTRES, S.A.	GIDARI IDENTIFIKAZIOA
MULTA 2018 9	25,00	PREMIER MOTOR ARABA S.L.	GIDARI IDENTIFIKAZIOA
MULTA 2018 54	25,00	BANCO SANTANDER	GIDARI IDENTIFIKAZIOA
MULTA 2018 133	25,00	ARVAL SERVICE S.A.	GIDARI IDENTIFIKAZIOA

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea kontuhartzaitza eta diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoari beste arrazoiren batzuegatik preskribatutza edo baliogabetutza deklaraturako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

5.- ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREI BURUZKO ZERGA ARAUTZEKO ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA: Hasierako onarpena.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga arautzeko indarrean dagoen ordenantza fiskalaren 5.3.2 artikulua honako hau jasotzen du:

5.3.2- Ordenantza honetan aurreikusitako edozein hobari jaso ahal izateko, derrigorrezkoa izango da subjektu pasiboak ondorengo baldintzak betetzea:

A.- Udalari ordaindu beharreko zergak kitatuta edukitzea.

B.- Pertsona fisikoen kasuan, Eskoriatzan erroldatuta egotea zergaren sortzapen-unean. Pertsona juridikoen kasuan, egoitza soziala Eskoriatzan izatea.

C.- Jakinarazitako behin-behineko kitapena ordainduta izatea.

Ordainketa subjektu talde batek egin behar duenean (jabekideak eta abar), aplikatuko zaion hobaria talde horretako kideek baldintzok betetzen dituzten portzentajearen adinakoa izango da.

Kontuan izanik ordenantzan jasotako hobariak justifikatuta gelditzen direla eraikinaren, instalazioaren edo obraren helburuarekin, horien sustatzailea edo subjektu pasiboa herrian erroldatuta egon edo ez edo egoitza soziala bertan izan edo ez, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako zinegotzi guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Eraikuntza, Instalazio eta Obrak arautzeko ordenantza fiskalaren 5.3.2 artikulua honela aldatzea:

Honako hau dioen lekuan:

5.3.2- Ordenantza honetan aurreikusitako edozein hobari jaso ahal izateko, derrigorrezkoa izango da subjektu pasiboak ondorengo baldintzak betetzea:

A.- Udalari ordaindu beharreko zergak kitatuta edukitzea.

B.- Pertsona fisikoen kasuan, Eskoriatzan erroldatuta egotea zergaren sortzapen-unean. Pertsona juridikoen kasuan, egoitza soziala Eskoriatzan izatea.

C.- Jakinarazitako behin-behineko kitapena ordainduta izatea.

Ordainketa subjektu talde batek egin behar duenean (jabekideak eta abar), aplikatuko zaion hobaria talde horretako kideek baldintzok betetzen dituzten portzentajearen adinakoa izango da.

Honako hau esatea:

5.3.2- Ordenantza honetan aurreikusitako edozein hobari jaso ahal izateko, derrigorrezkoa izango da subjektu pasiboak ondorengo baldintzak betetzea:

A.- Udalari ordaindu beharreko zergak kitatuta edukitzea.

B.- Jakinarazitako behin-behineko kitapena ordainduta izatea.

Ordainketa subjektu talde batek egin behar duenean (jabekideak eta abar), aplikatuko zaion hobaria talde horretako kideek baldintzok betetzen dituzten portzentajearen adinakoa izango da.

Bigarrena.- Erabakia jendaurrean jartzea 30 egunez, nahi duenak erreklamazioak edo oharrak egin ditzan.

Hirugarrena.- Aldaketa erabakia behin betikoa izango da, erabaki berririk hartu behar gabe, jendaurrean jartzeko arauzko epea igarota inolako erreklamaziorik egingo ez balitz.

6.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2018ko laugarren hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 9 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

7.- TORREBASO PASEALEKUAN KOMUN PUBLIKO BAT JARTZEKO KOMUNA EROSI, OBRAK EGIN ETA KOMUNAREN MANTENIMENDUA EGITEKO ESKORIATZAKO ETA ARETXABALETAKO UDALEN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEA.

Eskoriatza eta Aretxabaleta lotzen dituen eta Torrebasotik pasatzen den bidegorria bailarako biztanleek, batez ere bi udal horietakoek, asko erabiltzen duten azpiegitura da.

Jende askok erabili arren, bide osoan ez dago komun publikorik, eta zerbitzu hori egotea eskatzen dute bidegorriaren erabiltzaileek.

Udal biek komenigarritzat jo dute komun publiko autogarbigarria jartzea, eta horretarako, elkarlanean aritzea komuna erosteko, komuna jartzeko obrak egiteko eta komunaren mantentze-lanetarako.

Aurrez esandako guztiarengatik, eta Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- TORREBASO PASEALEKUAN jarri gura den komuna erosteko, komuna jartzeko obrak egiteko eta komunaren mantentze-lanetarako ESKORIATZAKO ETA ARETXABALETAKO UDALEN ARTEAN egin beharreko hitzarmena ONARTZEA.

Bigarrena.- Alkatetzak beharrezko erabakiak har ditzala Eskoriatzako Udalak bere gain hartu dituen betebeharrak bete ahal izateko.

ERABAKIA HARTU AURRETIK HITZA HARTUTAKO EK ESANDAKOAK:

- Aitor Zubizarretak proposatu du komuna industrialdera sartzeko bidea hasten den biribilgunearen inguruan jartzea. Proposamena justifikatzeko esan du gune horretan komuna martxan jartzeko beharrezko zerbitzu guztietarako harguneak daudela (ura eta argia), eta parkeko berdeguneari gutxien eragingo dion lekua dela.

Josu Ezkurdiak erantzun dio ideia oso ona dela, eta teknikariei esango diela kontuan har dezaten martxoko batzordera eramango den proposamenerako.

- Rafael Bernalek eskatu du komuna erosterakoan ingurumen irizpide bezala sar dadila instalazioak autokonpostajea egiteko aukera izatea. Horretarako, horrelako komunei buruzko informazioa lortzeko konpromisoa hartu du.

8.- DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETA.

Udalbatzarrak, 2018ko abenduaren 18ean egindako bilkuran, 2016-2019 diru laguntzen plan estrategikoa eguneratzeko erabakia hartu zuen plan hori 2019ko ekitaldiko aurrekontuari egokitzeke.

Eguneraketa onartuta, komenigarria ikusi da planaren eranskinean jasotako aurreikuspenetako batzuk aldatzea lerro estrategikoetako diru laguntza programa batzuen eremu subjektiboa edota objektiboa zabaltzeko. Aldaketa horiek honako hauek dira:

A- ONDORENGO PROGRAMANTAN AURREIKUSITAKO KOSTEA HANDITZEA:

A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: MERKATARITZA

Aurrez esandako guztia kontuan izanik, Garapen Ekonomiko Jasangarria batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- ONDORENGO PROGRAMETAN AURREIKUSITAKO KOSTEA HANDITZEA:

A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: MERKATARITZA

HARTZAILEAK: Deialdiko oinarrietako baldintzak betetzen dituzten eta 2017ko urtarrilaren 1etik Eskoriatzako hiri guneko lokal huts batean merkataritza edo zerbitzu proiektu berri bat sustatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.

HELBURUA: Merkataritza edo zerbitzu arloko establezimendu berriak irekitzeko lokal hutsak alokatzeko edo erosteko diru laguntzak.

LORTU GURA DENA: Eskoriatzan merkataritza eta kontsumoa biziberritzeko PERCOren ekintza plana betetzea. (PERCOREN 1-ARDATZEKO JARDUERA PLANA)

DIRU LAGUNTZA MOTA: Deialdi publikoa.

2019ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 7.700 euro.

FINANTZIAZIOA: 0500.481.431.00.01 partida

9.- SAHARAKO ERREPUBLIKA ARABIAR DEMOKRATIKOAREN 43. URTEURRENA DELA-ETA ERAKUNDE ADIERAZPEN PROPOSAMENA.

Berlaratutako zinegotziek aho batez onartu dute ondoren transkribatzen den erakunde adierazpena:

SEADen 42. URTEURRENARI BURUZKO ERAKUNDE-ADIERAZPEN PROPOSAMENA

Egun gutxi barru, 2019ko otsailaren 27an, Saharar Herriak Saharar Estatuaren (Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa – SEAD) 43. urteurrena ospatuko du.

43 urte dira Mendebaldeko Sahararen okupazioaren aurrean Herri Sahararrak borrokan dirauela, eta egoera irtenbiderik gabe jarraitzen du. Horrenbestez, lurralde okupatuetan zein Tindufeko errefuxiatu sahararren kanpamentuetan bizi diren biztanleak haien giza eskubideak urratuta ikusten dituzte, okupaziopean edo errefuxiatuta bizitzera behartuta.

Testuinguru honetan, Nazio Batuek aurrerapausoak eman dituzte Fronte Polisarioa eta Marokoko Erreinuaren arteko elkarriketak desblokeatzeko, sei urte baino gehiagoz geldirik egon eta gero. Horrela, abenduan lehen elkarriketa erronda bat egin zen, eta beste berri bat espero da 2019ko lehen hiruhilekorako.

Era berean, Europar Batasuna eta Marokoren arteko arrantza akordioari dagokionez, Europako Justizia Auzitegiaren epaia berri on eta aurrerapauso garrantzitsu bezala ikusi izan da, bertan, hurrengo baieztatzen Delako: “Mendebaldeko Sahararen gaineko Marokoko Erreinuaren subiranotasuna ez dela errekonozitzen, ez Europar Batasunaren partetik, ezta bere kide diren Estatuenetik ere, eta ezta, modu orokorrago batean, NBE-aren partez ere”. Hala ere, eta epai horren aurka, 2019ko otsailaren 13an Europako Parlamentuak Europar Batasuna eta Marokoko Erreinuaren artean negoziatutako arrantza akordioa onartu du, bertan ilegalki okupatutako Mendebaldeko Saharako lurraldea barnebiltzen delarik.

Horregatik guztiagatik, datozen tokiko, foru eta Europako hauteskundeetara begira, deialdi egiten zaie partidu politikoei, prestatzen dituzten hauteskunde programetan saharar auzia barnebildu dezaten, honen dimentsio politiko, elkartasunezko, humanitario, eta kooperatiboan. Eta, aldi berean, hautetsiei eskatzen zaie Herri Sahararraren askatasunarekiko konpromisoa adierazi dezaten.

Era berean, erakunde bidaietan egiten den lana oso beharrezko izaten jarraitzen duela baloratzen da, horien bidez lurralde okupatueta eskubideen urraketa egiaztatzeko: saharar biztanleen adierazpen, bilera, elkartze eta manifestazio eskubideak, alegia. Eta baita Nazio Batuen ebazpenak bete eta giza eskubideak errespetatzeko eskatzeko.

Horregatik guztiagatik:

BERRESTEN DUGU Fronte Polisarioa dela Saharar Herriaren ordezkari bakar eta legitimoa, NBEak eta nazioarteko komunitateak hala onartuta.

SALATZEN dugu, berriz ere, Mendebaldeko Saharan dagoen marokoa okupazioa ilegala dela, eta ezin duela Herri Sahararraren autodeterminazio eta independentzia eskubidea urratuko duen ondorio juridiko edo politikorik izan.

EGIAZTATZEN DUGU Mendebaldeko Sahara lurralde autonomo bat dela, Nazioarteko Zuzenbidearen arabera, eta Marokoko Erreinuaren parte inoiz ere izan ez dela. Eta, horregatik, Mendebaldeko Saharako okupazio ilegala bertan behera geratzea aldarrikatzen dugu, eta baita Herri Sahararrak duen autodeterminazio eskubidea ere.

AINTZAKOTZAT HARTZEN DUGU Mendebaldeko Sahararen “de iure”-ko potentzia administratzailea Espainia dela adierazten duen Auzitegi Nazionalaren Autoa.

EXIJITZEN DIOGU Marokoko Erreinuari saharar preso politiko eta kontzientziakoa berehala askatu ditzan, eta horrek kontrolatzen dituen kartzeletan giza eskubideen urraketak amaitu daitezen, presoen osasun fisiko eta psikikoa bermatuz. Aldi berean, familiei elkartasuna adierazten diegu.

SALATZEN DUGU Mendebaldeko Saharan Marokoko Erreinuaren eskutik egiten ari den errekurtsio naturalen bidegabeko ustiaketa, eta lurralde horretan lan egiten duten enpresei nazioarteko zuzenbidea eta saharar biztanleen eskubideak errespetatzea eskatzen diegu. Interesa dutenei (enpresak eta herrialdeak) Herri Sahararraren ordezkari zilegiarekin (Fronte Polisarioa) negoziazioak hasteko eskatzen diegu.

GOGORARAZTEN DIEGU eurodiputatuari, Marokorekin negoziatutako arrantza akordioaren alde Europako Parlamentuan otsailaren 13an eginiko bozketa, zeinek Mendebaldeko Sahara barnebiltzen duen, legez kanpokoa izango dela, EUko Justizia Auzitegiaren epaia ez errespetatzeagatik. Eta hargatik, akordio horren kontra gauzatzen diren kanpainekin bat egiten dugu, Marokok ez duelako subiranotasunik Mendebaldeko Sahararen gainean.

SALATZEN DUGU, Marokoko Erreina eta Europar Batasunaren arteko arrantza akordio horren onarpena, Europako Parlamentuak otsailaren 13an onartua, eta Mendebaldeko Sahara barnebiltzen duena, akordioa Herri Sahararraren eta haren bidezko ordezkari den Fronte Polisarioaren onarpenik gabe eginagatik.

ESKATZEN DUGU Nazio Batuen partez Mendebaldeko Saharako gatazkaren irtenbide justu eta behinbetikoa lehenbailehen bideratu dezala. Irtenbide hori, ezinbestez, Herri Sahararraren autodeterminazio eskubidea erreferendum bitartez gauzatzetik pasa beharko da. Eta NBE-ren Giza Eskubideen Kontseiluari eskatzen diegu Mendebaldeko Saharako Giza Eskubideen Errelatore bat izendatzeko.

BERRIZ ESKATZEN DUGU, Mendebaldeko Saharako egoera larriaren aurrean, MINURSOak haren funtzioak handitu ditzan. Hargatik, Nazio Batuei eskatzen diegu MINURSOari saharar biztanleen giza eskubideen zaintza eta ikuskaritza eskuduntza eman diezaion lurralde okupatueta.

EXIJITZEN DIOGU Europar Batasunari, Marokoko Erreinuarekin duen Lehenetsuneko Akordioan ezarritako giza eskubideen errespetuari dagokion klausula gauzatu dezan.

INDARTZEN DUGU gure lankidetzaren Emakume Sahararren Batasun Nazionalarekin (UNMS), hark errefuxiatuen kanpamentuetan gauzatzen duen berebiziko lanagatik. Era berean, emakumeen giza eskubideen urraketa eta ikusezintasunaren gainean arreta deitzen dugu, bereziki lurralde okupatuetan desagertutako emakumeen gainekoa.

ESKATZEN diegu, euskal erakundeei, elkartasun laguntza eta laguntza humanitarioa indartzea, bai Tindufeko saharar errefuxiatu kanpamentuekin, zein lurralde okupatutako biztanleekin.

ADIERAZTEN DUGU, SEADen 43. urteurrenaren ospakizunak direla eta, euskal erakunde ezberdinek Tindufeko errefuxiatu kanpamentuetara bidaia egingo dutela, Herri Sahararrakiko konpromisoa berresteko.

Estatu Espainiarrak Mendebaldeko Saharari dagokionez duen arduraren jakitun izanda, Espainiako Estatuari hurrengo eskatzen diogu:

- Marokoko Erreinuari Mendebaldeko Saharara giza eskubideak errespetatu ditzan exijitzeko, eta baita biztanle sahararren kontrako indarkeria bertan behera utzi dezan. Horrenbestez, Nazio Batuen eta Europar Batasunaren baitan MINURSOak Mendebaldeko Saharara giza eskubideen ikuskaritza eta babesgauzatzeko eskuduntza izan dezan lan egiteko eskatzen diogu.

- Saharar biztanleen giza eskubideak errespetatzeko exijitu dezan, Ginebrako Giza Eskubideen Kontseiluko kide izango den heinean, 2018-2020 aldian.

- Fronte Polisarioari estatus diplomatikoko ordezkaritza aitortzeko, Herri Sahararraren ordezkari zilegi bakarra den heinean, NBEak hala onartuta. SEAD-a onartu dezala, horrenbestez.

- Biztanle sahararrekin duen lankidetzaren eta laguntza humanitarioa areagotu dezala, bai errefuxiatu kanpamentuetan zein lurralde okupatuetan, izan ere AECID-aren laguntzak azken urteetan murriztu baitira. Horretaz gain, Mendebaldeko Saharara bideratutako Europako Fondoen areagotzea eskatu dezala.

Azkenik, euskal gizarteari dagokionez, hurrengo adierazten dugu:

ESKATZEN DIEGU, komunikabideei, Mendebaldeko Saharako gatazka duen garrantziarekin landu dezatela, gizarteak ematen dion garrantzi berarekin, alegia. Eta elkartasuna adierazi nahi duten pertsonen Mendebaldeko Saharako egoeraren berri sare sozialetan eman dezaten animatzen ditugu.

AINTZAKOTZAT HARTZEN DUGU RASD-telebista, Saharar Irrati Nazionala, Saharar Berri Agentzia eta zonaldean lan egiten duten beste komunikabideek duten garrantzia, bereziki, lurralde okupatuetan, Herri Sahararraren egoera eta haren helburu zilegiak zabalduz.

ADIERAZTEN DIEGU, elkartasun elkarte eta kolektiboei, gure esker ona, haiek, egunerokoan lan egiten baitute Herri Sahararrakiko laguntasunak bultzatuta, helburu bakarra senidetutako herri horren askatasuneko etorkizuna lortzea izanda.

AITORTZEN DUGU haurren udako harrerarako Oporrak Bakean programaren berebiziko garrantzia, familia saharar eta euskaldunen arteko elkartasunaren eta maitasunaren adierazpen handiena.

Erakunde-adierazpen hau hurrengoetara bidaltzea proposatzen dizuegu:

- Nazio Batuetako Idazkari Nagusia.
- Ginebrako Giza Eskubideen Batzordea.
- Horst Kohler Jauna, NBEko Mendebaldeko Saharako ordezkari berezia.
- Europar Batzordea.
- Espainiako Estatua.
- Espainiako Errege Etxea.
- Fronte Polisarioaren Euskadiko Ordezkaritza.
- Marokoko Gobernua.

10.- ERAKUNDE ADIERAZPEN PROPOSAMENA: 2019ko MARTXOAREN 8a, BIZITZAK ERDIGUNERA!

Bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute ondoren transkribatzen den erakunde adierazpena:

Gizarteak mezu argia jaso zuen 2018an, Mugimendu feministak Martxoaren 8rako egindako emakumeen lan-etenaldi deialdiari eman zitzaion erantzunaren aurrean: kaleak bete ziren eta elkarlansareak sustatu, emakumeek beren aukera-berdintasuna erreklamatzeko abian jarrita zuten borroka atzera bueltarik ez zuela.

2019rako ere indarrean jarraitzen dute emakumeen aldarrikapenek, “Bizitzak Erdigunera!” lelopean. Aurten ere, emakumeen bizitzak jasangarri, libre, anitz eta duinak izateko eskaerak kaleak hartuko ditu. Beharrezkoa da emakumeen lan-prekarietatea eta pobrezia salatzea, indarkeria matxista guztien aurka egitea, eta bazterkeria eta arrazakeriari uko egitea.

Gizarte honen barnean emakumeengan eragiten duten zapalkuntza eta diskriminazio-sistema guztiak desagerrarazteko lanean gure udaletik ere Martxoaren 8an Emakumeok planto egitea eta Bizitzak Erdigunean jartzea aldarrikatuko dugu.

Eta zer esan nahi du azken horrek, zehazki?

*Gure bizitzak sostengatu eta beroriek erdigunean jartzeko ordainduak eta ordaindugabeak diren lan guztiak beharrezkoak diren heinean, nagusiki emakumeoi egokitu zaigun **zaintza-lan** hori guztia eremu pribatu horretatik atera behar dugula; hau da, zaintza eta etxeko lanen ardura sozializatu behar dela eta gizonek eta erakunde publikoek ardura zuzenak hartu behar dituztela.*

***Denboraren erabilera** orekatzea erabat estrategikoa eta gakoa da berdintasun-politikak eraginkorrako izan daitezen. **Europako Berdintasun Adierazleak** kontuan hartzen dituen esparruetatik Denborakoan eragiteak, Boterea, Ezagutza, Dirua eta Enpleguetako domeinuetan eragitea ere badakar.*

Aurrekari hauek aintzat hartuta, Eskoriatzako Udalak erabaki hauek hartzen ditu:

- Eskoriatzako Udalak ardura hartzen du berdintasun erreala eta eraginkorra bermatuko duten politika publikoak burutzeko.

- Eskoriatzako Udalak ardura hartzen du zaintza-lanak bere politika publikoen erdigunean jartzeko.

- Eskoriatzako Udalak, Mugimendu feministak deitutako greba dela eta, ardura hartzen du udaleko emakumezko hautetsi eta langileei greba egin ahal izateko erraztasunak emateko.

Azkenik, herritarrak deitzen ditu Emakumeen Nazioarteko Egunagatik Mugimendu feministak Martxoaren 8an deitutako mobilizazioetan eta ekitaldi desberdinetan aktiboki parte hartzera.

11.- GALDE-ESKEAK.

Santa Marina eremuan egiten ari diren obrei buruzko informazioa eskatu du Aitor Zubizarretak.

Josu Ezkurdiak erantzun dio aparkaleku berria egokitu ondoren, orain bi jarduera egiten ari direla, bere garaian aztertu eta onartu zirenak batzorde informatzaile batean:

- Santa Anatik Santa Marina plazara igarotzeko gune bat egokitzea.
- Etxebizitzak egitea aurreikusten den lurzati pribatuen inguruan gune berdeak egokitzea.

Gehitu du etxebizitzak egiteko lurzatietan jardutea ere planteatzen ari direla, horiek gune berde bezala egokitzeak, hirugarrenentzako egon daitezkeen arriskuak kenduta, ez badu gastu handirik eskatzen. Kostu ekonomikoa baldintza garrantzitsua izatea justifikatzeko esan du kontuan hartu behar dela lurzati pribatuak direla, egunen batean etxebizitzak egingo direla bertan, eta horregatik ez dela bidezkoa diru publiko asko inbertitzerik.

Aitor Zubizarretak esan du jakinaren gainean gelditu dela, baina ez duela gogoratzen batzorderen batean erabaki zenik aparkalekua egokitzeke egun egiten ari diren jardueraren inolako jarduera osagarri egiterik.

Eta beste gairik ez dagoenez, 18:16an amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.

1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de las sesiones ordinaria y extraordinaria celebradas en fecha 18 de diciembre de 2018 y 22 de enero de 2019..

2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA.

2.1.- Resoluciones adoptadas.

Se da cuenta de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 19 de febrero de 2019 haciéndose entrega de un copia del extracto de las mismas.

De forma expresa se da cuenta de los acuerdos por los que se aprueban los expedientes de modificación de créditos N ° 1,2 y 3/ 2019.

3.- MODIFICACION DE LA PLANTILLA ORGANICA 2019

Examinada la propuesta de modificación de la plantilla orgánica por haber sido declarada, con efectos 1 de febrero de 2019, en situación de excedencia voluntaria sin reserva de puesto de trabajo a Dña. Nuria Durana Aldaz, funcionaria de carrera adscrita al puesto de administrativo de Atención al Público.

Resultando que el principio de buena administración exige una adaptación continua de la organización a los cambios producidos de forma que la misma reproduzca una imagen fiel de la realidad económica y organizativa subyacente.

Considerando que la plantilla orgánica es consustancial con la potestad de autoorganización prevista en los artículo 4 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, y artículo 4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales -ROF-, aprobado por Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre; quedando excluida de la obligatoriedad de negociación con las organizaciones sindicales.

Considerando que la aprobación de la plantilla y consecuentemente de su modificación, corresponde al Ayuntamiento Pleno, en virtud de lo previsto en el artículo 22 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local -LRBRL-, sin que tal atribución pueda ser objeto de delegación.

Considerando que para la modificación de la plantilla, aprobada junto al Presupuesto municipal, deben seguirse los mismos trámites que para la aprobación de este último, por así exigirlo el artículo 126 del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de las Disposiciones Legales vigentes en materia de Régimen Local -TRRL-.

Considerando que, con carácter previo a su inclusión en el orden del día del Pleno, el expediente debe someterse a estudio de la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas, por

así exigirlo, entre otros, los artículos 20 de la Ley 7/1985, de 2 abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local -LRBRL-, y 82, 123 y 126 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales -ROF-, aprobado por Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre.

